



## **EBAZPENA (08/2010 esp., TITI-GAZTA)**

### **Osoko bilkura**

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Pilar Canedo Arrillaga andrea txostengile dela, ebazpen hau egin du TITI-GAZTARI buruzko 08/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Consello Regulador da Denominación de Orixe Protexida Queixo Tetilla izenekoak Queserías Araya, S.A.ren kontra ipinitako salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako jokabideak egin zirela, ustez.

### **AURREKARIAK**

1. 2010eko ekainaren 14an Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren ofizioa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren erregistroan. Horren bitartez, Consello Regulador da Denominación de Orixe Protexida Queixo Tetilla izenekoak Kontsumoaren Arabako Lurralde Bulegoan aurkeztutako idazkiaren fotokopia bidali zen. Idazki horren bitartez kontseiluak salatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko dendetan behar ez bezala erabiltzen ari zirela "titi-gaztaren" geografia-izendapena.

Aipatutako salaketan adierazi zen Merka Okela kateko dendetan Queserías Araya, S.A. merkataritza-etxeak egindako gazta saltzen ari zirela, eta "titi-gazta" izenarekin iragartzen zela, Consello Regulador da Denominación de Orixe Protexida Queixo Tetilla (aurrerantzean Consello) izenekoak emandako nahitaezko etiketa edo kontraetiketarik izan gabe. Beraz, gaztaren geografia-jatorriari buruz kontsumitzailea engainatzeko asmo argia zegoen.

2. 2010eko ekainaren 18an, salaketa zuzentzeko agindeia bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Consello izenekoari, eta 2010eko uztailaren 5ean sartutako idazkiaren bitartez bete zen hori. Idazki horrekin, salaketak ikusitako hutsuneak zuzendu ziren, baita bestelako dokumentazioa aurkeztu ere. Bertan ikusi zen Merka Okelak 2010eko ekainaren 14an jakinarazi zuela utzi egin ziola "titi-gazta" deitzeari horretarako baimenik ez zuten itxura koniko, konkabo-konbexoko (*sic*) gaztei. Era berean adierazi zen 2010eko ekainaren 15eko mezu elektronikoan honakoa adierazi zela: *...gure hornitzaileak gazta hori erosten hasi ginenean esan zigun titi-gaztaren*



*berdina zela itxurarengatik, behi-esnez eginda zegoelako..., baina argi utzi zigun euskal Usoa zela.*

Halaber, Consello-ak nabarmendu zuen Jatorri Deitura Babestuaren babes-eremuak titi-gaztaren itxura ere hartzen duela, eta baimendu gabe erabiliz gero jokabide desleiala eragiten dela, Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeari jarraiki.

3. 2010eko uztailaren 7an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpena egin zuen eta, horren bitartez, informazio erreserbatua hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espeditentea ireki aurretik, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
4. 2010eko irailaren 16an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ohar laburra eta informazioa bidali zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalako lkerketen Zuzendaritzari, salatutako jokabideari buruz, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2. eta 5. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Modu berean jakinarazi zen, espeditentean jasota zegoen informazioaren arabera, ez zela hautematen jokabideak Euskal Autonomia Erkidegoarena baino maila goragoko esparruari eragiten zionik eta, 1/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kasu honi buruz jakiteko eskumena Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari zegokiola iritzi zen. Lehiaren Batzorde Nazionala ados egon zen iritzi horrekin.
5. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak informazioa aurkezteko agindeia egin zien honako hauei:
  - Queserías Araya, S.A. (aurrerantzean, Araya) merkataritza-etxeari, 2010eko uztailaren 12an. 2010eko uztailaren 27an jaso zen.
  - Consello delakoari, 2010eko uztailaren 12an. 2010eko uztailaren 27an jaso zen.
  - Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari, 2010eko uztailaren 19an. 2010eko uztailaren 30ean jaso zen.
  - Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzari, 2010eko uztailaren 20an. 2010eko uztailaren 27an jaso zen.
  - Queserías Castillo de Pambre, S.L. merkataritza-etxeari, 2009ko uztailaren 29an. 2010eko abuztuaren 12an jaso zen.
  - Galiziako Xuntako Elikagaien Kalitateko Kontrol Zerbitzuari, 2009ko uztailaren 29an. 2010eko urriaren 4an jaso zen.
6. 2010eko urriaren 8an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako ebazpen-proposamena bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honi. Bertan LDEZk LDEAri



proposatu zion salaketa artxibatzeke eta zehapen-espediterik ez irekitzeko salatu zen jokabideari zegokionez.

7. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2011ko abenduaren 22ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, María Pilar Canedo Arrillaga andrea zela txostengilea.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

8. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeke aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeke aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
9. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
10. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluaekin bat etorritik.
11. Consello-ak ipinitako salaketan adierazi zen Merka Okela kateko dendetan Queserías Araya, S.A. merkataritza-etxeak egindako gazta saltzen ari zirela, eta "titi-gazta" izenarekin iragartzen zela, Consello Regulador da Denominación de Orixe Protexida Queixo Tetilla izenekoak emandako nahitaezko etiketa edo kontraetiketarik izan gabe. Beraz, gaztaren geografia-jatorriari buruz kontsumitzailea engainatzeko asmo argia zegoen.



**12.** LDEZren ebazpen-proposamenak dio, salatutako gertakariak ikusita, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen aginduak hautsi izanari buruzko zantzurik. Hori dela eta, zehapen-prozedurarik ez irekitzeko proposatu zaio LDEA honi.

LDEA guztiz dator bat LDEZk egindako ebazpen-proposamenarekin, jarraian azalduko diren oinarriak direla eta.

**13.** Salatutako gertakariari dagokienez, LDEZk gertakariok informazio erreserbatuaren bitartez egiaztatu ondoren, honakoa ondoriozta daiteke:

1. Merka Okela, S.L. dendak titi-gaztaren antzeko itxura duen Usoa gazta merkaturatu zuen, eta Queserías Araya, S.A. da produktu horren arduraduna, inolako jatorri-deiturarik aipatu gabe ontziratatu eta etiketatu duela.
2. Queserías Araya, S.A. merkataritza-etxeak etiketatu gabeko "titi-gazta" itxurako gaztak erosi zizkion Queserías Castillo de Pambre, S.L. enpresari, eta enpresa hori Consello-an dago inskribatuta (10. folioa). Erositako gaztek ez zuten "Titi-gazta" Jatorri Deitura Babestuak ezarritako gutxieneko pisua, eta deskalifikatutako gaztatzat hartzen ziren. Ondoren Arayak bere Usoa markarekin etiketatu eta ontziratatu zituen.
3. Merka Okelan saltzeko ipini ziren "titi" itxurako gaztak Arayak Quesos Aldanondo, S.L.ri saltu zion 32 unitateko sorta batekoak dira. Horrek 31 unitate merkaturatu zituen 3 dendaren bitartez: 2 Gasteizen (Merka Okela) (25 unitate) eta bat Iruñean (6 unitate).
4. Queserías Araya, S.A.k ez du titi-gaztaren antzeko itxura duten gazten publizitaterik egiten, ez katalogoetan ez eta web gunean ere. Usoa markako gaztak, Merka Okelak merkaturatutako gaztek zuten markakoak, biribilak dira.
5. Maiatzaren 20an eta ekainaren 17an Consello-ak jakinarazpen bana bidali zion Araya merkataritza-etxeari, eta horietan eskatu zen ez zezala gehiago itxura koniko, konkabo-konbexorik (*sic*) erabili "titi-gazta" Jatorri Deiturarik ez zuten gaztetarako. Halaber, legez kontra (*sic*) itxura hori zuten gazta guztiak merkatutik kentzeko agindu zion. Horren guztiaren oinarri dira "Titi-gaztaren" Jatorri Deituraren eta bere Kontseilu Arautzailearen Araudia<sup>1</sup> (41.1.d artikulua<sup>2</sup>), 510/2006 EE Erregelamendua<sup>3</sup> (13.1 b) eta d) artikulua<sup>4</sup>) eta Leia Desleialari buruzko 3/1991 Legea<sup>5</sup> (55-66 folioak).
6. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, 2010eko apirilaren 7an, bisitak egin zituen Arayara eta Quesos Aldanondo, S.A.ra, eta horiei buruzko 13/10 eta 14/10 aktetan jaso zuen (392-456 folioak), besteak beste, Arayak ez zuela "titi" itxurako gaztarik, ez eta horiek egiteko molderik ere.



**14.** Azaldu den benetako errealitatean LDEA honek ez du ikusi lehiaren defentsari buruzko araudia urratu izanari buruzko zantzurik. Izan ere, ez da ikusi kolusiozko jokabidea (LDLren 1. artikulua) edo nagusitasunezko egoeraren abusua (LDLren 2. artikulua) eragiten duen elementurik.

LDLren 3. artikulua urratu izanari dagokionez, lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzearen bitartez, kontuan hartu behar dugu lege-agindu horrek lehia desleialeko egintzak aipatzen dituela, Lehia desleialari buruzko 3/1991 Legean aipatutako egintzak, eta bide judizialera bideratzen dituztela egintza horien kalteak, lehia desleialari buruzko lege horren 32. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, lehia desleialeko egintza horiek interes publikoari eragin diezaieketenez, jokabide horiek administrazio-bidean zigor daitezke, lehiaren defentsarako bidezko agintaritzaren bitartez. Gauzak horrela, Auzitegi Gorenak esan du<sup>1</sup> dagoeneko indargabetuta dagoen Lehiaren Defentsari buruzko 16/1989 Legearen 7. artikulua merkataritza-desleialtasuneko portaerak aipatzen dituela, printzipioz erantzun juridikoa euren ekimenpean duten enpresei bakarrik eragiten diela (bidezko ekintza zibilak erabiltzearen bitartez), eta eragindako kalte-galerak ordaintzea eragiten dutena. Beste izaera bat eskuratzen dute, publikoa, eta lehiaren defentsa zaintzeko ardura duen administrazio-agintaritzak zigor independentea ezartzeko aukera ematen du.

Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ere esan zuen<sup>2</sup> egintza desleialen bat lehia askearen kontrakoa zela ondorioztatu ahal izateko ez zela nahikoa desleialtasuna egotea, eta beharrezkoa zela, era berean, desleialtasun horren ondorioz nabarmen eragitea lehia askeari, merkatuaren funtzionamendua modu esanguratsuan asaldatzeko beste.

Azaldu den kasuan, "titi-gaztaren" antzeko itxura duen gazta merkaturatzea Justizia Auzitegiek egintza desleialtzat har dezaketen arren, Lehia desleialari buruzko legea hausten delako (LDEA honek ez du gai hori aztertzen), gogoan izan behar da jokabide horrek LDLren 3. artikulua urratu ahal izateko ezinbestekoa izango dela interes publikoari kalte egitea, eta inola ere ezin izango litzateke ondorioztatu "titi-gaztaren" antzeko itxura duten 31 gazta merkaturatzeak interes publikoari eragin dionik eta, ondorioz, merkatuaren lehia-baldintzak eraldatu direnik.

## EBAZPENA

**BAKARRA:** Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

<sup>1</sup> Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 20ko epaia.

<sup>2</sup> Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2002ko maiatzaren 27ko ebazpena, r516/02v, Colexio de Avogados de Vigo.



Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a

**LEHENDAKARIA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**KIDEA**  
**M<sup>a</sup> PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**